

ZENBAT BURU
iñlgo Otaño

ERREPORTAJEA
Arrieta eta iriondo
familiak, hiru
belaunaldi
lanbide berean

GEHIGARRIA
KiliBARREN

BERBETAN
Xabier Gorriti
Kampo zorrari
buruz hizketan

KULTURA
Argazki ikastaroa
Ongarri
kolektiboaren
eskutik

0:1 RREN

Belaunaldiz belaunaldi lanbide berean



“Nolako zura halako ezpala” Esaera zaharra



Ortopedia

Ortesiak, Protesiak
eta laguntza teknikoak

Itzior Sarosketo Ortopedio

Orain San Frantzisko 12an aurkituko gaituzu.

Tel. Faxes: 943 74 35 62



- ▶ NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK
- ▶ ZAPATAK
- ▶ FAJAK



- ▶ GURPILDUN AULKIAK
- ▶ ORTOPEDIA OROKORREAN

101

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43-1. - Tel: 943 74 27 20 - ELGOIBAR

Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres ibilbideetik). - Tel: 943 20 34 45 - E1BAR



OTAÑO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Beti iruditu izan zait, guztiok ere antzera pentsatzen dugula eta kezka berdintsuak ditugula. Kezka horiei ematen diegun irtenbidean dago ezberdintasuna. Are gehiago, kezka guzti-guztiak kezka handi batetik datozela esango nuke, kontaezinak diren kimu anitzetan amartzen den enborra bezalatsu.

Txikitán bizitzaren gertaerek harritzen gintuztenean, zentzurik aurkitzen ez genien galdera asko sortzen zitzaizkigun, eta nagusiek ernandako erantzunak ez genituen inoiz erabat sinestu. Orain harri-dura hori akaso baretu da, baina urteekin forma aldatu arren galdera berberak behin eta berriz errepikatzen dira geure buruan. Batzutan izkutuan daude, jertsearen bizkaraldean ikusi ezin ditugun zimurdura horiek bezala. Beste batzuetan berriz garbi-garbi ageri dira, akats guztiak erakusten dituen ispilu handi bat parean jarri baligute bezala.

Eguneroko bizitzak dakartzan kezka txikiek sare trinko bat osatzen dute, geure burua entretenituz eta era berean babes-tuz. Bakoitzak bere ohiturak ditu, bere

Kezka

errutinak, denboraren joanari zentzu bat ematen dioten trikimailuak. Bizitza mugatu, definitu nahi dugu, zeregin bat izan, zimurdurak izkutatu. Guztiz beharrezkoa egiten zaigu sare trinko hori osatzea, lasaitasun apur batekin behintzat bizi ahal izateko. Baina nork ez dio bere buruari galdetzen, une batez bada ere, daramagun bizitzaren zentzuaz?

Bizitzari parekotasun asko aurkitu ohi zaizkio, baina ez dakit zergatik, betidanik izan dut buruan bizitza xake partida bat jokatzeko bezala dela dioena. Arau batzuk jarraitu hehar dira eta ondo pentsatu behar da jokaldi bakoitza, eragin zuzena baitauka ondorengoetan. Mugimenduek ez dute itzulbiderik eta zorigaitzoko jokaldi batek berehala buka dezake partida.

Hala ere, bizitzak joan-etorri handiak izaten ditu eta askotan xake jokalaria baino, xake taulako piezak garela iruditzen zaigu, uste baino gutxiago baitago gure eskuetan.

Bizitzari nahi adina parekotasun aurki dakioke, bai, baina bat bera ere ez da egokitzten erabat. Agian, bizitzari zentzurik aurkituko bagenio, zentzua galduko luke.

"Guztiz beharrezkoa egiten zaigu sare trinko hori osatzea, lasaitasun apur batekin behintzat bizi ahal izateko. Baina nork ez dio bere buruari galdetzen, une batez bada ere, daramagun bizitzaren zentzuaz?"

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12

Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

AROITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegia,
Jon Eugi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Andoitz Agirregomezkorta

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,
Aitor Argarate, Idoia Arozena,
Aitzol Arriola, Martin Dominguez,
Juanito Gorostiza,
Amaitz Gorriti, Ion Gurrubega, KOKOE,
Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,
Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,
Iñigo Otaño, Jon Peti Uriguena,
Iban Urizar, Amaia 1J rzelai,
Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren fiburutik

BANAKETA AROURADUNA Imanol Larrañaga

EUSKARA ZUZENTZAILEA Ibon Arriola

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta
Foru Aldundiak
diruz
lagundutako
aldizkaria.



*gizarte-ekintza
obra social*

41 DANOBAT

4^o IGOITI

Gure "Hauntra"

rlure "Hauntri" a sailkapenean atzeko aldean zebilela entzunda neukan eta larunbat arratsaldean Eibarren aurkako norgehiagokan Mintxetara berri animatzera igotzea erabaki nuen.

Azkenaldi honetan, Mintxetara oso jende gutxi joaten zela ere entzunda neukan eta baita zuzendaritzak egindako deiek erantzun txikia izaten zutela ere. Egia esan, ekipo batek momentu onetan baino gehiago, egoera txarretan behar du zalegoaren indarra, hau dela eta gogoz joan nintzen "Haundi" a animatzera.

Sarrerara iritsi bezain pronto, Elgoibarko bazkide batzuk haserre ikusi nituen. "D1a del CIub" delakoa zela eta, bazkideek 1.000 pezeta ordaindu behar zituzten eta 1.500 pezeta bazkide ez direnek. Detalle itxusia iruditu zitzaidan, bazkideekiko errespetuta, eta Mintxetara hain jende gutxi zerkatik joaten den ulertzen hasi nintzen.

Honegatik guztiarengatik, ideia "zoragarria" izan zenutenei hurrengo galderak egin nahi dizkizuet:

"Haundi" a dagoen egoeran ikusita (sailkapenean), hamabost egunero Mintxetan gure taldea aninutuzten izaten diren bazkideei 1.000 pezeta ordainaraztea gauza logikoa iruditzen al zai-zue? Horrela pentsatzen al duzue Mintxetara betetzea?

Jokalarientzat zorionik beroenak. Azken partiduetan bezala jarraitzen baduzue, ez izan mailari eutsiko diogunaren zalantzarik.

AUPA ELGOIBAR!

J.Z.

Buesaren hilketa mar inguruko gogoeta

D> i pertsona hiri dituzte Gasteizen azken asteetan. Tristura, samina, haserrea... sentimendu nahasiak. Zer lortu nahi zuten honekin? Beharbada, euskaldunon buru gainean harri bat gehiago jartzea da lortu dena.

Zerk galerazten dio ezker abertzaleari ETaren ekintzak gaitzestea? Nire uste xumean gehiengoak argi dauka ETak desagertu egin behar duela. Garbi dago lana politikoei egin behar dutela, ideia ezberdinak errespetatu eta erabaki zuzenak lortuz. Oinezkoei, berriz, euskal politikoei bat egitea eta herri honen mesederako erabakiak hartzea gustatuko litzaiguke, eta ez eguneroko hika-mika eta partidu bakoitzaren interesen tira-biran jardutea.

Euskal Herria ondo bizi daitekeen leku bat da, baina herri hau nola gobernatu asmatzea da huts egiten duguna. Ez dut sinestu nahi hori hitzen bidez lortu ezin dugunik. Famili bateko kideek ideia ezberdinak izan ditzakete, baina horregatik ezingo dira elkar hiltzen hasi, ezta?

Arrazoiak gure alde ditugu baina indarkeriak jartzen du dena gure kontra.

A.M.G.


BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.



ilgur Mattaneri eta ongi etorri Andoith

Urtebetez BARREn publizitatea eskuratzen ibili ostean, agur esan digu Maitane Cidek. Lankide eta Iagun izan dugu Maitane eta, gure artetik joan den honetan, eskerrak eman nahi dizkiogu egindako lan guztiarengatik, baita lan berrirako zorte onena desio ere. Bere ordeze beste elgoibartar bat etorri da gurera, Andoitz Agirregomez-korta. Hemendik aurrera Andoitz ibiliko da iragarkien saltsan. Ia bada, Andoitz ere, Maitaneri bezalaxe, merkatariorik harrera ona egiten diozuen.

ESAN?



Jon Elizaide

Lanbide Heziketako arduraduna

Lanbide Heziketa lana aurkitzeko gero eta bide hobea dela nabaratu du 'Egailan' erakundeak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Hezkuntza sailen aginduz egindako ikerketak. Elgoibarren inota honetako ikasketak eskaintzen dituen ikastetxe bat bada eta bertan Lanbide Heziketako arduraduna den Jon Elizalderekin hitz egin dugu gai honi buruz.

GALDERAK

• Herritar batek honako galdera hau egin digu: "Nafarroa enparantzan, Merkatu Plazaren sarreran zegoen telefono kabina publikoa zergatik kendu duten jakitea nahi nuke. Bere kokalekua zela-eta, hau da, herri erdian, jende askok erabiltzen zuen kabina hori eta berriz jartzeko asmoric ba al duten jakitea gustatuko litzaidake".



Telefonica'ra deitu dugu eta hau izan da Benancio Etxeberria, Telefonica-ko prentsa arduradunak, eman digun erantzuna: "Bi telefono aparatuetuen kabina berria jartzeko asmoa dugulako kendu dugu kabina zaharra. Kabina berria ahal den azkarren jartzea da gure asmoa. Bitartean, barkatu eragozpenak erabiltzaile guztioi".

- Lanbide heziketako ikasketak amaitu eta %78a hiru hilabete baino lehen sartzen da lan merkatuan. Hori al da Elgoibarko ikasleen kasua? - Espezialitate batzuetan besteetan baino lehenago sartzen dira lan munduan, baina orokorrean Lanbide Heziketaren egoera oso ona da.

- Metala, elektrizitatea, elektronika eta delineazioa ikasi dutenek dute lanean hasteko arazo gutxi. Zuek zein ikasketak eskaintzen dituzte? - Gure institutuan administratiboko, automozioiko, erizantzako eta merkataritzako ikasketak eskaintzen ditugu. Bai goi mailakoak eta baita maila ertainekoak ere.

- Matrikulazioak gora gin du azken ikasturtean Lanbide Heziketan. Prestigioa hartzen ari al da gazteen artean? - Ikasleak konturatzen ari dira unibertsitatea ez dela lana aurkitzeko biderik onena eta gaur egun Lanbide Heziketak aukera asko eskaintzen dituela. Espezialitate asko eskaintzen dira, bakoitzak nahi duena ikasteko eta lan munduan errazago sartzeko. Horretaz aparte, Lanbide Heziketako ikasketak guztietan ikasleek ikasten ari diren espezialitateko praktikak egin behar dituzte (300-400 ordu inguru) ikasitakoa benetan praktikan jartzeko. Hotzengatik hartzen du gero eta ikasle gehiagok Lanbide Heziketarako bidea.

- Ordezkapen kontratuaren aldeko apustua egin du lan salburuak. Gazteen langabeziari aurre egiteko bide egokia al da hori? - Jende gazteari alternatiba bat ematen zaio lan munduan sartzeko, eta aldi berean, urte askoan lanean ari den jendearentzat lana uzteko aukera bat da. Beraz, irtenbide ona dela uste dut. Kondizio onetan gelditzekotan, lana uzteko prest dagoen jendea dago, eta gazteak ere lan bila dabilazala argi dago.

1104T, Vc,

ROCK-KAFEA

AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA

ESKOLA ARAZOAK:

ikasteko zailtasunak
m portaera desegokiak

Arrieta eta Iriondo familiak

HIRU BELAUNALI

Eñelebu-kontratu langabeziari aurre egiteko euskal gizarte eta ekonomia eragileek bitzartutako akordioa da. Langabetu eta aum-jubilazioaren arteko zubia izateko sortu zen. Enetiro aurreratua hartzen duen langileari, erretiroa hartu aurreko 5 urteetan, soldata piska bat murrizten zaio, horrela, gazte langabetuek lana bilatzeko aukera gehiago baitituzte. Lan munduan ematen den errelebu moeta bat da, baina badaude beste batzuk ere, esaterako, belaunaldi belaunaldi aitek semeei irakasten dizkieten ofizioak. Familia bereko bi belaunaldi ofizio berean aurkitzea nahiko arrunta da, ez ordea, famili berdineko hiru belaunaldi ofizio berean aritzea. Negozio familiarrez ari gara, eta Elgoibarren ere badaude kasu bakan batzuk. Guk Iriondotanekin eta Arrietatarrekin berba egin dugu, horniketari industrialaz eta eskopetagintaz.



Victor eta Asier aita-semeak (ezketrean) eta Jose eta Juan Karlos aita-s eak (eskurnan) izan dira Avelino Arrietak hasitako bielejarraitu

Arrietatarak = eskopetagintza

Eskopetagintza lan arrunta baino gehiago dela azaldu digu Juan Karlos Arrietak, "lanbide arrunt bat baino gehiago, bizitzeko modu bat da, tradizioa betetako artisaun lan bat. Mekanizautako pieza hartu eta andorengo eskulan guztixa, grabatuak barne, guk eitxen ditxugu". Eskopetagintza gurasoek semeei belaunaldiz belaunaldi irakasten dieten lanbideen adibiderik garbienetakoa da. Juan Karlos, Arrietatarren hirugarren belaunaldiko eskopetagilea da eta berak azaldu dizkigu lanbiclearen xehetasunak, "Artisaun erara egiten diren eskopetak eitxeko ez dao eskolarik. Ofiziva ikasteko, limia hartu eta jo ta fuego erain bihar jako, be-

giratzia eta praktikatzia da ikasteko modu bakarra". Hori dela-eta, nahiko arrunta da eskopetagintzan aritzen diren familia osoak aurkitzea.

Esan bezala, Elgoibarren Arrietatarren kasua daukagu, familia hiru belaunaldi ezberdin aritu baitira 60 urtetik gora artisaun eskopetak egiten. Avelino Arrieta izan zen fundatzailea. Hainbat urteetan beste eskopeta lantegi batzuetarako lanean jardun ostean, 1940 inguruan bere izena zeraman lantegia ireki zuen Jose eta Victor, bere bi semeen laguntzaz. "Lehen, eskolara urte batzuk jun eta gero, lanian hasten zian gaztiak: Jose, nere aitxa, eta Victor 17 urtekin hasi zian aitxan ofiziva ikasten". 1970. urtean 'Manufacturas Arrieta' izena hartu zuen, sozietate mugatu bilakatu baitzen. Garai hartan,

espainiar estatutik kanpora eskopetak saltzen hasi ziren. Gaur egun, Jose eta Victor Arrieta jubilatuta daude, baina hauen semeak Juan Karlos eta Asier, hurrenez hurren, dira tradizioa bizirik mantentzen dutenak, beste 20 langilerekin batera. Urtean 450 eskopeta egiten dituzte, gehienak enkargu pertsonalak. Bataz beste 3 hilabete behar dira horrelako eskopeta bat egiteko. Grabatuak egiteko, berriz, 200 ordu gutxi gorabehera. Bestalde, produkzioaren %95a mundu osoan zehar saltzen dute. Prezioei dagokienez, 400.000 pta. tik 2.500.000 pta. balio duten eskopetak egiten dituzte.

Etorkizunari buruz galdetu diogunean bere dudak azaldu dizkigu Juan Karlosek, "familixakoren batek guk urratutako bidia jarraitziak ilusio haundixa eingo liake. 18 urteko semia dakat, baina ikasten hasi da. Momentuz ikasten jarraitxu dezala, gero eingo dau be-




Avelino Arrietak (atzean) ezingo luke imaginatu noraino iritsi den berak sor e es elauunaldi beranduago, bere dobek inu du osuan saltzen dituzte pre ligo handiko eskopetak.

BEREAN

rak aukeraketia". Arrietarren jarraipena kolokan ikusten badu ere, lanbidearen beraren jarraipenaz kezkatuago dagoela esan digu, "artisau erara eindako eskopeten alorrian beti egongo da lana, ez dot amaitzeko danik uste. Arazua eskopetak eitzen ditzuzten artisauek amaitzeko dala da, espezializazio asko eskatzen daban lana da-eta. Informatika nagusi dan garaietan, gaztiak ez dia guria moduko lan bat ikastera animatzen, ez da botoi bat sakau eta makinak lana ein daixela itxoitia bezain erreza. Trebetasuna eta pazientzia eskatzen dau". Ofizioa irakasteko eskolank ez egotea beste traba bat dela gaineratu digu, "beste lantegi batzuekin batera eskola bat sortu bihar izan dou. 11 ikasle dao momentuan eta gurekin bi aprendiz dauz kagu. Berezko doaiak eukitzia inportantia izan arren, bere kasa moldatzen ikasi ordurako, guixienez 3 urte biharko ditzue. Gaztiekin konfidantzia eta soltura lortu aurretik, nagusixok erretirauta egongo gerala da arazo nagusixa".

Iriondotarrak= Hornikuntza industrialia

Gaur egun Karmel Irianda da 'Suministros Industriaies Karmelo Iriondo S.L.' dendaren ardura daramana, baina bere



EDUARDO IRIONDO

aurretik aita eta aitona izan dira negozio familiar hau aurrera ateratu zutenak. izan ere, 1931. urtean Eduardo Iriondok ireki zuen denda, eta 70 urte eta 3 belaunaldi beranduago, Karmelek jarritzen du bere aitona Eduardok hasitako bidea.

Karmelo triondo, Karmeien aita, ia 50 urte dendan lanean egin ostean, jubilatuta dago gaur egun. Berak azaldu dizkigu horrenbeste urtez bere lanbidea izan denaren gora-behera guztia k. Negozio familiarraren sortzailea bere aita, Eduardo Iriondo, izan zen. "Aitxak 1931. urtim industriarako hornikuntza al-mazen txrki bat zabaldu zaban. Bertan, makina harramientaren industriak zitxuan biharretarako produktuak saltzen zitxuan: motorentzako uhalak, amiontuak, oli-xuak, gomak etab". Almazena betetzeko produktuak Bilbotik eta Bartzelonatik fortzen zituztela aipatu digu Karmelok, "garai hartan, Alkortako eta San Pedroko fabrikak zian gure aitxan bezerorik inportaniienak. Hala ere, Mutrikuko, Ondarruko eta Eibar-ko enpresetan ere saltzen zitxuan produktuak".

Seme bakorra izanik, bere aitari laguntzeko hasi zela lanean kontatu digu Karmelok, "aiixari laguntze aldera hasi nintzan 1949. urte inguruan. Pisu asko mobitxu bihar izaten zan, baina horretarako erreztasun gitxi zauan orduan, ez zauan kotxe eta kamioi gehixegirik-eta. Karruakin ibiltzen ginan batetik bestera. Biharrak bultzauta hasi nintzan, beraz, eta aitxak erakutsi zian negozi-zivan berri". Makina bat urte lanean ibili ondoren, Kormelori berari ere lana astuna



1.981. urtean Iriondo aita semeak
kartekin lanean. E bilautta dago baina
pozik semea aitona nako lanean ikusteaz.

1.931. urtean Eduardo Iriondok denda zabaldu zuenetik Iriondotarren 3 belaunaldik egin dute lan hornikuntza industrialak saltzen.

egiten hasi zitzaion, eta bere semeetako bat hartu zuen laguntzaitzat, karmel, alegia. 1981. urtean izan zen aita-semeen arteko errelebu, semea soldadutzatik bueltatu zenean. "Etxeko batek negozi-zivan arduria hartziak poza eman zian. Gainera, semiak indar handixa eman dio negozi-zivari". Denda San Bartolome kalean egon da beti, nahiz eta lehenengo 5 urte-tan gaur egun dagoen lekutren pareko etxean zegoen kokatuta. Kokalekua gutxi aldatu bada ere, funtzionamentua eta bertan saltzen dituzten produktuak goitik behera aldatu dira. Almazeneko produktuen zerrenda, eskar-rak... guztia ordenagailu bidez kontrolatzen da egun. Eta enpresek ere beste behar batzuk dituzte, kimika eta materialen alorrek aurrercuntza handia izan baitute.

lein ondorio izango ditu Buesaren eta bere blzkarzainaren hilketak?



MARI CARMEN CID

46 urte, etxekoandrea

Ez dut uste ondorio onak ekarriko dituenik. Nik heriotza hauen aurkako ekintzetan parte hartuko dut, baina ezin dut beste ezer egin. Esperantza galtzen ari gara.



IÑAKI ALBERDI

41 urte, ajustadorea

Politikoez zer esaten duten entzun behar da. Nere ustez hilketak danak dira ningerriak, bai alde batekoak eta bai bestekoak ere.



IDALINA DOMINGUEZ

66 urte, etxekoandrea

Gauzak gero eta okerrago doaz eta konpontzeko zer-bait egin behar genuke iruditzen zait. Onena bake giroan segitzea izango litzateke.



TOMAS LOZANO

61 urte, langabetua

Politikari buruz ez dut ezer askorik ulertzen, hala ere, arazoak politikoez konpondu behar dituzte. Beraiek ezin badute ezer egin, herritarrok are gutxiago.



MARIA LUISA NARBAIZA

47 urte, etxekoandrea

Onak ez hehitzat. Holako gauzei ezin da ezer aurreratu. Horregatik, ni hilketak hauen kontra protestatzeko plazan indako konzentrazioa izan naiz.



EDUARDO IRAEGI

73 urte, jubilatua

Gauza lamentable bat izan da eta resultau onik ez daukuko. Hilketen kontra beti eon naiz. Morala eta etikia politikian ginetik daozela uste dot.



,e1440.1144
 Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
 Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

4curuct[

Enpanadak

Baserriko ogia

IVAN

Enbutidoak


Bolleria

Şa1Bartolome, 61 B. Ezenarro, 1 Tr 943 74 3392,



<154

KAFETEGIA
943 74 42 65



DUTIA KORREUZ EMAN NAHI

BADUZU DEITU ONDORENGO

TELEFONOETARA:

943 74 08 22 (Karmele)
 943 74 20 19 (Miren)
 607 43 56 16 (Jose Mari)



Osa unean adituak

GA1A:

ASPIRINA

Ia mendearekin batera naunduratu zen pastila miragarri hau. 1997an 100 urte bete ziren kimikari alemaniar batek aurkikuntza egin zuenetik. Arrunta, eferbeszentea, mastekatzekoa edo haurrentzat bereziki prestatua. Zeinek ez du aspirinaren berri izan? Nork ez du noizbait buruko mina kentzeko aspirinarik hartu?

Buruko mina arintzeko ezezik, gripeak sortutako oinazeak kentzeko ere erabili izan du askok aspirina. Eta hainbeste jendeak hartzen duenez, mende baten buruan munduko botikarik ezagunena izatera heldu da.

Hasieran, buruko mina erreumatismoa eta gripea sendatzeko baino ez zen erabil-tzen. Baina zientzilariek erabilera gehiago aurkitu dizkiote denboraren eta egindako azterketen poderioz. Esaterako, aspirina minbizia, kataratak eta diabetea aurreikus-teko baliagarria dela erakutsi digute hainbat ikerketek, baita kimla egin ostean sus-pertzeko ere. Miokardio infartuak aurrei-kusteko ona da eta infartua izan ondoren hartuz gero ere, ba omen du eragina.

Askorentzat minaren aringarri bada ere, hainbat pertsoneri kalte egin diezaike aspi-rinak. Urdaileko arazoak dituen jendeak as-pirinak hartzea ez da gomendagarria.

Egunean 215 milioi aspirina inguru har-tzen dira munduan, 2.500 pastila segundu-ko. Izan ere, 70 herrialdetan baino gehiago-tan dago erregistratuta eta errezetarik gabe saltzen da. Hemendik aurrera, beraz, bada-kizue, aspirina bat hartzen duzuen bakoiz-tzean munduan beste lagun asko ere gauza bera egiten ari

MASAJ ISTAK

Victoria Iraegi

..... P Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Diagnostikoak insaren eta kinesiologiaren bidez eta Shiatsu)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tei: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

da honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ral

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENe 943 74 41 12ra

• **Botoa postaz emateko argilthleak EAJren eskutik**

Elgoibarko EAJko Uri Buru Batzarrak, d atorren martxoaren I 2ko hauteskundeetan botoa postaz eman nahi dutenei argibideak emateko prest daudela adierazi nahi die. Beraz, interesatuak Plazako Batzokira joan daitezke edo telefonoz ere dei dezakete: 943 74 27 44 (goizez, 11:00etatik 12:00etara eta arratsalde 19:00etatik aurrera) edo 943 74 12 04 (edozein ordutan).

• **Osasun Zentroko telefono berria 943 03 29 10 da**

Herritar guztiei aditzera eman nahi zaie, hemendik aurrera Osasun zentrora deitzeko telefono berri bat markatu beharko dela. Lehen bi telefono zenbaki zeuden anbulatorioan, baina txanda hartzeko eta larrialdietarako bestea. Baina hemendik aurrera bakarra egongo da. Hala ere, horrek ez du adierazi nahi telefona beti okupatua izango denik, izan ere, nea bat baino gehiago egongo dira. Bide batez, Osasun Zentroko ardura-dunek zera gogorarazi nahi diete elgoibartarrei: astelehenean larunbatera, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 17:00etara, jendearen esanei kasu egiteko daudela. Beraz, txanda eskatu behar dutenentzat, egunean bertan edo bezperan deitu beharrean, aurretik eskaria egitea hobe da. Horrela, telefona larrialdietarako libre laga daiteke eta anbulatorioko lana ere hobeto programatu ahal izango dute. Honako hau da gogoan hartu beharreko telefono zenbaki berria: 943 03 26 10.

250 lagun inguru elkartu ziren Plazan Buesaren eta bere bizkarzainaren hilketari salatzeko

15 minutuko kontzentrazio isila egin zen asteazkenean

Jende ugari elkartu zen joan den asteazkenean, hilaren 23an, **eguerdiko 12:00etan** Plaza Handian egindako kontzentrazioan. Fernando Buesa, PSE-EEko Arabako idazkari orokorraren eta bere bizkarzainaren hilketen aurka protestatzeko kontzentrazio isila egin zuten bertan bildutakoek. Fernando Buesa eta Jorge Diez ertzaina asteartean hil zituzten Gasteizen bonba auto batek eztanda egin zuenean. Eguraldi txarrari aurre eginez, 15 minutuz egon ziren Udaletxe parean bi heriotza hauek salatzeko eta biktimen familiei elkartzuna adierazteko. Plazan bildutakoen artean, besteak beste, Gillermo Garate,



Eguraldi txarrari aurre eginez Eudelen deiari herritar askok erantzun zion.

alkatea, izan zen. Azkenaldian, horrelako ekintzak gertatzen diren guztietan, Eusko Jaurlaritzak kontzentrazioarako deia luzatu ohi die herritarrei, eta elgoibartarrak Plazan kontzentratu ohi dira. Oraingoan deia Eudelek egin du eta guztira, 250 lagun inguru egon ziren Plazan deiari erantzunez.

Udalaren kontsumo elektrikoa %4 jaitsi da 1999an
Patronatuetan izan da beherakadarik handiena

Elgoibarko Udalaren kontsumo elektrikoa behera egin du azken urtean. Guztira 36.601.000 pta. ordaindu dituzte, iaz baino % 4'7 gutxiago. Diru kopuru handiena kaleko argietan gastatu dute, 13.517.000 pta. Honen atzetik leudeke Udal Patronatuen gastuak, 8.299.000 pta. Bestalde, gastu txikiagoak eragin dituzte udalak, eskoletako suministro elektrikoak eta uraren bonbeoak. Patronatuetako gastuen jaitsieran egindako aldaketak oso erabakiorrak izan dira. San Lazaro Egoitzan eta Zaharren Biltokian gas instalazioa jarri izana eta Olaizaga Kiroldegia 3 hilabetez itxita egotea izan dira jaitsieraren arrazoiak batzuk.

Kaleko argiak
Bestalde, kaleko argiaren kontsumoak go-



Kiroldegiko obrak zirela medio elektrizitate kontsumoa ohikoa baino baxuagoa izan da.

ra egin du. Horren arrazoia kaleen argiztatzean egin diren berrikuntzetan dago. Batetik, potentzia handiagodun farolak ipini dituzte eta bestetik, heniko eraikuntza eta monumentoak ere argiztatu dituzte.



Mikel Lizarralde Euskadiko Gazteen Gurutze Gorriko zuzendari izendatu dute

Mikel Lizarralde, 27 urteko gazte elgoibartarra, izendatu dute Euskadiko Gazteen Gurutze Gorriko zuzendari. Joan den lantnbatean, hilaren 18an, egin zen otizial Lizarralderen izendapena. Horretarako, Gipuzkoako, Bizkaiako eta Arabako Gurutze Gorriko ordezkariak Elgoibarren izan ziren. Guztiak Elgoibarko Gurutze Gorriaren lokalean elkartu eta ondoren Alkatearekin izan ziren. Udaletik guztiak Kultur Etxera joan eta bertan egin zuten izendapeneko ekitaldi otiziala. Mikel Lizarralde orain dela 11 urte hasi zen Gurutze Gorrian bolondres gisa eta hainbat postutatik pasa ostean, kargu hau hartu du. Datozen lau urtetarako bere asmoen artean, besteak beste, osasunari eta ingurugiroari buruzko bi programa martxan jartzea daude.



50 lagun inguru izan ziren Jarraitaldeak presoaren sakabanaketaren aurka egindako manifestivjoan

Joan den ostiralean, hilaren 17an, sakabanaketaren aurkako manifestazioa egin zen Elgoibarren Jarrakaita. 50 lagun inguruk Ruben Garate otxandioko gaztearen eta Iñaxio Aierbe errefuxiatu ohiaren heriotzak salatu zituzten. Ruben Garate, Alealako espetxean preso bat bisitatzen izan eta bueltan Euskal Herrira zetorrela auto istripuz hil zen. Iñaxio Aierbe berriz, errefuxiatuta egon ostean, duela hilabete gutxi batzuk itzuli zen Euskal Herrira eta bere herrian hil da. Bestalde, EHk "Euskal presoak Euskal Herrira. Bakea behar dugu" Ieloarekin kontzentrazioak deitu zituen egun bererako Hego Euskal Herriko Udalen aurrean.

EHren abstentzioaren aldeko martxa astelehenean pasatu zen Elgoibartik



EH alderdiak martxoaren 12ko hauteskundeetarako abstentzioaren aldeko apustua bultzatu nahi du. Hori dela eta martxa bat antolatu du Euskal Herriko hainbat herritan barrena. Astelehenean, hilaren 21ean, eguerdiko ordubatean pasatu zen Elgoibartik abstentzioaren aldeko martxa. Auto karabanak heniko kaleak zeharkatu zituen eta Plaza Handira heldu ostean, ibilbidea jarraitu zuen. Plazan

panpin puzgarri bat jarri zuten jendeari abstentzioaren aldeko martxa iritsi zela adierazteko. Martxa, bihar, hilak 26, larunbata, amaituko da Donostian. Arratsaldeko I 7:30ean Anoetatik abiatuta manifestazioa egingo da "Faxismo espainiarraren aurka, Euskal Demokrazia" lemapean. EHko kideek elgoibartarrei bertara joateko deia luzatu nahi diete. Horretarako, arratsaldeko 16:00etan autobusa aterako da Plaza Handitik Donostiara joateko.

Ikasle ingelesak etorri dira Elgoiharrera bisitan

Erresuma batuko Litherland High Schooleko ikasle talde bat Elgoibarren da joan den igandetik, hilaren 20tik. Liverpool ondoko herri bateko ikasleek Elgoibarko ikastolarekin egin ohi duten elkartrukea da hau. Ikastolako 37 ikasle bertan izan ziren eta orain, martxoaren 4ra arte ikasle ingelesak Elgoibarren egongo dira. Elkartrukearen helburua linguistikoa eta kulturala denez, hizkuntza praktikan jartzeaz gain, hemengo bizimodua ere ezagutuko dute. Asteartean, Ikastolako ikasleak eta ikasle ingelesak beraien irakasleekin Udaletxera inguratu ziren eta alkateak ongi etorria egin zien. Bestalde, gurean ere izan ditugu. BARREnera bisitan etorri dira gaur goizean eta aldizkariaren furazionamendua erakutsi diegu.



Espero baino 6 milioi pezeta gehiago jasoko du Udalak Foru Aldunditik

Guztira 600 milioi pasatxo eskuratuko ditu Gipuzkoako erakundetik

Udalak urtero diru kopuru bat jasotzen du Foru Aldunditik, Fondo Foraletik, hain zuzen ere. Hori Gipuzkoako herri guztiak gertatzen da eta Elgoibarren kasua ez da salbuespena. Elgoibarrek urtean 600 milioitik gora jasotzen du Gipuzkoako herrialdeko erakundetik. Kontutan hartu behar da Elgoibarko Udalaren urteko aurrekontua 1.000 milioi ingurukoa dela. Beraz, honèk esan nahi du aurrekontuaren erdia baino gehiago eskuratzen duela Elgoibarrek Foru Aldunditik.

Dint hori, ordea, ez da Udalarri ematen zaion oparia, legeak hala aurrakusten duelako egiten da. Kontua da, Foru Aldundia dela zergak jasotzeaz arduratzen dena. Gero, Aldundia gainontzeko administrazioekin adostasunera heltzen da diruaren banaketan: Foru Aldundiak zati bat hartzen du, Eusko Jaurlaritzak beste bat, diruaren beste zatitxo bat Estatuarentzat da eta gainontzekoa Gipuzkoako herrien artean banatzen da.

Foru Aldundiak urtean aurrikuspen batzuk egiten ditu jasoko duen ruarf buruz. Ondoren, uda ostean, iraila edo urri aldera, balantze bat egiten da, urtea nola doan jakiteko eta aurrikuspenak betetzen ote diren ezagutzeko. Azkenik, urtarrilean edo otsailean, uneko likidazioa egiten da; urtean egon diren sarrerak, gastuak etab. bil-tzen ditu balantze definitibo honek.

Horrela, aurtengo balantzea egin da eta Foru Aldundiak aurrikusitakoa baino gehiago jaso duela adierazi dute zenbakiek, guztira 400 milioi gehiago batu dira, hain zuzen ere. Ondorioz, Elgoibarko Udalak diru gehiago jaso-

ko du, hain zuzen ere, espero baino 6 milioi pezeta pasatxo gehiago. Honen arrazoia zera da: iazko urtea, ekonomiari dagokionez, ona izan zen, horregatik administrazioak diru gehiago batu zuen. Beraz, diru gehiago dago Udalen artean banatzeko.

Udaleko iturriek pozik hartu dute berria. Nahiz eta sekulako dirutzaez izan, herriko proiektuetan inbertitzeko ongi etorriko dira 6 milioi horiek.



Jasotako 6 milioi pasatxo horiek herriko proiektuetan inbertituko dira.

• Melitongo ibai presan tuboak jarri dira bizilagunek kristaletan sumatzen zuten dardara kenponUeke

Melitongo zubiaren ondoko etxeek, azken urte hauetan, Deba ibaian presa berria egin zenetik, leihoetan zarata eta dardara moduko bat sumatu dute. Hau, egun konketu batzuetan bakarrik gertatzen zen. Udaleko langileek azterketak egin zituzten eta ibaiak ur maila konketu bat zeramanean gertatzen zela jakin zuten. Langileak batean eta bestean begira ibili ziren, arazoa zerk sortzen zuen jakin nahirik. Hasieran, kostatu egin zitzaizkien iturria aurkitzea, baina azkenean topatu zuten. Ura presan behera erortzean, hornaren eta ur jauziaren artean zarata antzeko bat sortzen zen; airea sakongune horretan konprimatuta egongo balitz bezala gelditzen zen eta ez zen handik ateratzen. Hori dela-eta, I hizkiaren formako tubo batzuk jarri dira presan gorantz begira, airea kanpora irten dadin. Horren bidez, zarata desagertu egin da eta inguruko bizilagunek azken 8 edo 9 urteetan eduki duten arazoa konponduta gelditu da.

54g^{11/4}

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa


Son Franizisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 vi 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



H

ilabete honetako argazkia Kontxi Olazabalek utzitakoa da. Mendaroko Ospas-Gain futbol zelaian atera zuten orain dela 23 urte bertan jokaturako lagun arteko partidu batean. Futbolerako zaletasuna handia izango zen orduan, ikusi besterik ez dago zenbat lagun elkartu ziren ongi pasatuz kirolean aritzeko. Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak:

Goian, ezkerretik eskumara: **Jose Zuloaga, Jose Antonio Loiola, Ramon Iriondo, Jose Mari Urbieta, Jose Domingo Zulaika, Ramon**

Lazkano, Antonio Garate, Juan Jose Izagirre, Xabier Jauregi, Jose Mari Garate, Jose Luis Izagirre, Pedro Mari Zuloaga, Patxi Olazabal, Domingo Ulazia, Elias Larrañaga, Jose Luis Zulaika, Juan Jose Larrañaga eta Juan Agustín Larrañaga.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Andres Egaña, Jose Luis Olazabal, Roke Olazabal, Nikolas Roteta, J. Luis Urbieta, Ignacio Garate (t), Antonio Tarragual, Modesto Oliden, Andres Urbie-ta, Juan Ulazia, Andres Lazarobaster, Migel Angel Arriola, Jesus Azpiazu eta Migel Mendikute.**

karobiak, meildaroren iragana

Kareak garrantzi handia izan du XVII. mendetik ia gaurdaino, mende honen erdi aldera arte. Ongarri bezala erabili izan zen luraren errendimendua handitzeko. Bere produktiorako sortu ziren karobiak. Gaur egun, Mendaro bezalako kare harrizko ingurune batean, garai hartako baserriarren lan gogorraren testigantza ematen digute. Orain arte udan Mendarora auzolandegietan lanera etorritakoek konpondu dituztenak daude itxurosoen: Lizarolarako bidean, baserrira iritsi baino lehen dagoena, eta Errementaritik gorako estarta zaharrean, Kortaberri baserriaren muinoa, haraneren beste aldean bistaritzen duena eta bidearen amaieran Erentzara iritsi baino lehen aurki daitekena.

Hainbat mendetan gure baserri gehienetan karea lortu izan da kare harriaren bidez. Azken hau karobietan egosten zen kare bihurtzeko. Nekazaritzarako beharrezko, eraikuntzarako ere erabiltzen zen karea.

Karobia 4 edo 5 metroko altuera eta 2 eta 2'8 metro arteko diametroa dituen eraikin zirkularra da. Goiko aldeetik irekia, arbelarekin jasotzen zuten. Gehienetan leku aldapatsuetan eraikitzen ziren, erdia lurpean, goiko ahoak aldaparekin bat egiteko. Pairean, aldapa behera, metro eskaseko atetxoa irekitzen zen. Karobiaren barneko oinarria ataka baino behe-eraxago zegoen. Bertan, erregai bezala erabiliko zen egurra ipintzen zuten. Oinariaren altueran, atakaren azpitik, oinariarekin bat egiten zuen zuloa ateratzen zen kanporantz. "Karitra" deitzen zitzaion efeketako hautsak ateratzeko erabiltzen zen zulo honi. Barneko aldean, paretaren buelta guztia hartzen zuen harmaila batek kare harrizko kargari eusteko balio zuen.

Hauek dira karobiaren ezaugarri nagusienak. Erabili izan ziren beste era bateko karobi batzuk ere, "Frantsesak". Hauek baldintza industrialagoak zeuzkaten, produkzio jarraialegia. Mendaron ez dago halakoen arrastorik, hemengoak hasieran deskribatutako tradizionalaren eitea daukate.



KAROBI ERRETZAILEAK

Lehenengo egin beharrek lana kare harria eta egurra batzea zen. Kontutan hartu behar da 25 tona kare lortzeko 45 tona kare harri eta 15 tona egur erabili behar izaten zituztela karobi handienetan.

Labea prestatzeko, sakonean egurrezko oinarri bat finkatzen zen kanpai eran pilatutako kare harriei eusteko. Tartean arnas bideak irekitzen ziren. Lan gaitza zen prestaketa hau guzti hau, eta hortan jakitun zen kabi-garbitzaileari egokitzen zitzaion, era berean hargina ere bazen. Karobira jaisten zen kargatzailea, beroa mantenduko zuen harri xehe dena estaliz. Egun osoko lana ematen zion prestaketa honek guztiak.

LAN GOGORRA

Dena prest izanda, atakatik bildutako sasiak eta egurra sartzzen ziren. Karobiak apirilaren bukaeran edo maiatzaren hasieran ixiotzen ziren, hortik dator "Santa Kruz ailegatzerako denak erreak" esaera. Karea hautematen 48tik 54 ordua pasatzen zituzten etengabeko zaintzan. Pare bat lagunek deskantsurik gabe, elkar txandakatuz, karobia elikatzen zuten barneko beroa eta kea ahal zen moduan jasaten. Karobiak ke ahulagoa eta zuriagoa botatzen zuenean abisatzen zuen harria kare bihurtua zela. B itartean, geratu gabe, bi lagunek atakatik sartu beharko zi-

**Karobiak ke
ahulagoa eta zuriagoa
botatzen zuenean
abisatzen zuen harria
kare bihurtua zela.**

tuzten egurgaiak sua elikatzeke, aldi berean, haien errautsak kañutik ateraz.

Behin karea izanda, labetik atera eta baserrira eramaten zuten. Hau ere ez zen enplegurik gozoena, itzaii eta bi egun itxaron arren bero egoten baitzen hark gordetzen zuen karea besoz jasotzeko. Behin karea baserrira eramanda, leku lehor eta babestua eskaintzen zitzaion ongarritarako edo eraikuntzan hain preziatua zen letxaria egiteko.

ERREMENTARITIK GORA, KAROBIZ KAROBI

Pasa den urrian Mendaron egindako erakusketan "karobien ibilbidea" bezala ezagutarazi zuten bidearen zatirik politena da EtTementaritik gora dagoen gurdibidea. Pagadian barneratu aunetik, Errementari baserriko Ilario Arakistainekin hitz egin dugu karobieiei eta beste hainbat konturi buruz.

flariorekin berriketan

Ilario, Errementari baserrian bizi izan da betidanik eta gaztetan jardun omen zen karobietan lanean. Gogoan du bere osabarekin karegintzan nola jardun zuen, Irabanetara jaisten zen Botreatz errekaostoen aldameneko karobian. Bere baserrikoari buruz, "kriston eskapadia" egin zuela ohartarazi digu, "ixixa jausi nitzan zulora", esan digu Ilariok. Han dago hura oraindik bere ataka eta kañuarekin. Gero arkazi-hesolekin hesitu zuten eta orain seguru dago.

Karobiko lana "biIdurgarrixa" zela adierazi digu. "Hango berua! Gero karia lepaka eruaten gendun etxera". Kareaz eta bere erabileraz ere izan du esatekorik Ilariok. Kintalak 14 erreal balio omen zituena, "Itxen zan lanantzat ezer ere ez". Gurdian Elgoibarko fabrikara eramaten zuten karea batzuek. Erentzakoak ere han pasatzen omen ziren karea arrastaka zeramaten idiekin Lan'askandan barrena. Lurra lantzeko zuen balioaz galdetu diogunean honela erantzun digu: "aitxixak kare asko txatTa zala esaten zaban, lun'a dana trastornautalagatzen zabalaa".

Garai hura gehiago oroituz, "basuan egun guztia lanian jardun arren alegantziaz ibiltzen ginan" esan digu Ilariok. Gurdiak "burni-irrintziaren" abisuan iris-



Ilario Arakistain Errementari baserriko atarian zigarroa prestatzen. Karobien ibilbidea Pago arteko gurdi bidetik hasten da. Behean, Errementari baserriko eta Hiruiko karobiak.

ten zireneko iragan hartaz, mandozainak txistulari pasatzen zireneko irudia ekarri digu txapel azpiko begi argiekin. "Atzko jokuan ilusiva eta kantua bazian orduan". Gaur egun, dio gure baserritarrak "sufri- du ezina" dauka jendeak, "diru amon'ua". Gure ibilbidea izango den gurdibide zahatra jartzen du adibide moduan, sasiak estalita daukan goiko bidea ez baitu inork garbitzen "hor ez baitago dirurik".

Berak, lurraren seme bezala, tokian tokiko euskalkiek "lurran edo atmosferian" eraginarekin zerikusia dutela dio. Mendarok bertako naturalezari zor dion mendarotarez konpartitutako aspaldiko jakingaiak altzoan, bakoitzak bere bideari ekin dio. Ilario kortako lanak bukatzera eta gu, berriz, goiko karobiak ikustera. Agurtu aurretik, eskuz landutako zigarrokia mihazkatuz eskaini digu, beregan hain ezaguna den imajina hori gorde dugu,

Bidean gora

Pago arteko estartatik egin dugu gora. Txabola bat alboan laga eta piska bat aurrerago 'zortzi errebueltak' izenez ezagutzen den honetatik, lehenengo iraganda aurkitu dugu Errementari baserriaren karobia. Argazkian ikus daitekenez, ederki nabarmentzen dira kañua eta sarrerako ataka. Baita segurtasunarengatik goiko zuloan ipinitako hesia ere.

Argazkia atera eta gero aurrera egin dugu Erentzarantz. Ordu erdiko ibilaldia dago Mahastizo baserria zenaren hondakinetera arte. Hau gailentzen duen zelaian gora egin eskubitara dagoen haresia lagun, bidea berriz hartuta iritsi gara Hiruiko karobira, Mendaro eta Debaren arteko mugara. Han bi zuhaitz parean dituela aurkitzen da karobia, ipotxen etxetxo bat balitz bezala. Goraxeago dagoen Erentza baserriko Zulaikatarrek landu zuten bertan karea.

*** Gaztetxea eztabaidagai**

Gaztedi aktiboago eta partehar-tzeileago baten sorlekua da Gazte-txea, elkartzeko eta ekintzetarako gu-
ne bat. Guztiontzako balizko lokal ho-
nèk izan beharko lukeen izaeraz hitz
egiteko deia luzatu nahi zaie Menda-
roko koadriletako ordezkari. Bilera
gaur, ostirala, otsailak 25, gaueko
21:30ean izango da abade etxean.

Aingeru Guardako Eguna

Plaza auzoko jai batzordeak anto-
latuta, urtero ospatu ohi diren Ainge-
ru Guardako jaien programa atera ber-
ri da. Martxoaren lehen, asteazkene-
an, goizeko 8:00etan eta 11:00etan
Aingeru Guarda Eguneko meza izan-
go da eta hurrengo igandean, martxo-
aren 5ean egingo dira ospakizunik be-
rezienak. 12:00etako mezaren ostean
Azpillaga, Lanarlaga eta Loidisaletxe
aritutako dira bertsoan eta Ospas eta
Xabinen doinuek jarraituko diote
saioari. Guztiak eguerdiko 14:00etan
Aizpe'n egingo den bazkarian ere
izango dira. Izena emateko honako te-
lefono hauetara deitu beharko da mar-
txoaren 2a baino lehen: 943 75 50 07
(Miguel Angel) edo 943 75 61 15
(Xilberio).

> Txirristaka bertso eskola martxan da

Jarri da martxan bertso eskola
Mendaron. Guztira hamabi ikasle ari
dira bertsoan bi taldetan banatuta.
Gazteenen taldean Mendaroko San
Jose Ikastolan ikasten duten bost nes-
ka daude eta Udaberriari buruz hona-
ko bertso hau idatzi digute piskanaka
bertsoan trebatzen ari direla erakuste-
ko:

Udaberriari dago
Zelaian lorea
eta mendi gutzia
berdea-berdea
loreetara bizi
joaten da erlea
agertzen den gutzia
da elegantea

Frontoi aurreko elxebidzetako obren egoera txarra salatu lute berritarrek



Aspaldian jendearen ahotan da-
bil frontoi aurreko etxebizitzaren erai-
kuntzan segurtasun neurri eskasak
erabiliz ari direla. Honetaz gain,
mendarotaffek Suederko fabrikaren
egoera ere salatu dute. Abenduaren
amaieran izan zen haizeteak teilatu
zati bat bota eta kotxe bat kaltetu
zuela da egoera horren adibide gar-
bia. Argazkian bertan ikus daiteke
lantegi zaharra nola dagoen.

Bestalde, konstruktorek segurta-

suna ahaztuta, dirua aurreztu nahi
dutela. dirudi. Azken aldi gertatut
diren lan istripuen oihartzunak ere
ez ditu esnatu eta langileak ezezik
kaletarrak ere arriskuan jartzen di-
tuzte. Gainera, etorkizunerako Men-
daron dauden etxebizitza proiektuak
kontutan hartuta, argi ibili behar da
gai honekin. Etxebizitza garestien
aldeko apustua egitean jokuan jar-
tzen duten diruarekin, berriz, ahaztu-
ko al dituzte segurtasun baldintzak?

Berrikuntzak egingo thtuite liburuteglan

MendarOtarrok ez gara
salbuespen jendearen irakurzaletasun eskasa aipa-
tzerakoan. Gure liburutegiak aurrekontu txikiena du
Gipuzkoan, beraz, ez dauka eskaintza handirik. Mate-
rial gutxi dago gainera, ez da ezagutzen. 468 bazkide
ditu, baina horietatik oso gutxi dira jarraikortasun ba-
tekin liburuak eskatzera joaten dire-
nak. Hala ere, liburutegiak, aurrera
egin nahian lehen zituen 6.300 aleei
beste hainbat berri gehitu dizkie,
Besteak beste, Angel Lertxundiren
"Argizariaren egunak" eta Espido
Freireren "Melocotortes helados" li-
buru sarituak eskuragai daude. Fidel
Castroren azken hitzaldia eta Vaz-
quez Montalvanek Txipapasen Mar-



cos Subkomandantearekin izandako
enkontrua kontatzen duen "Mareos,
el señor de los espejos" liburu ere
iritsi berri dira. Epe motzean, Eusko
Jaurlaritzaren plan orokorraren
barnean, ABSYS sistema informa-
tikoa jarriko da martxan. Honela,
Josu liburuzainari informazioa eta
liburuen kokapena topatzea erraza-
goa izango zaio.

Pri Mendaroko Udalaren
dirulaguntzarekin argitaratua

Datorren martxoaren 12an, espainiar Estatuko hauteskunde orokorrekin batera, herrialde txiroen kanpo zorra barkatzeari buruzko kontsulta egingo da. Galdeketa sinbolikoa izango da, ez du halio legalik edukiko Estatuko 0,7 plataforma'k planteatutako egitasmo honek. Espainiar Estatuko 200 herri eta hiritan egingo da kontsulta eta gure inguruan Eibarren, Plazentzian eta Arrasaten. Xabier Gorriti bartarra Gasteizko 0,7 plataformako kidea da eta Eiharren erreferenduma antolatzen duen 'Dotoreak' elkartearekin dabil lanean. Berarekin berbetan jardtndugu egitasmo honen berri sakonago jakiteko.

"Emaitza onak espero ditzugu kanpo zorrari buruzko kontsultan"

— **Nola sortu da egitasmo hau?**

Iazko Udal hauteskundeetan Lleidako komisioak saiakera bat ein zaban, aurretik zapatistek buruturiko esperien tzia batian oinarrituta. Lleidako populazivaren %20alc hartu zaban parte botazio horretan eta merezi izan zabalara ikusi zan. Orduan, ideia hau Estatu guztira zabaltzeko erronkiari heldu zioten. Nik "Dotoreak" taldekoei ideia hau aurkeztu nien Gasteizko 0,7 batzordiarenean. Eitxeko aukerak zeudela ikusi genuan eta proiektua ateratzeko lanari ekin genion. Eibarren eta Plazentzian lortu gendun kontaktua.

— **Zertan ari zarete orain lanean?**

Oin bi esparnitan gabiz lanean: batetik, kanpo zorrari buruzko kontsulta eingo dala aditzera ematen gabiz; beste-

tik, sentsibilizazio kanpaina bat itxen ari gera; hau da, zerdan kanpo zorra, nola eragiten dien munduko hegoaldeko herrialdeiei, zein ondorio ditzuan etab. zabaldu nahixan ari gera. Kanpo zorra barkatzeko eskatzen dou arrazoi ezberdinengaitxik: aspaldi ordaindutako dirua dalako, interesetan bakarrik mailegatutakoa baino askoz ere diru gehixao ordainduta daualako. Eta hainbat herrialdetan, 1995eko datuek diotenez, hirugarren mundutik iparraldera kanpo zorren interesak ordaintzen bakarrik, garapenerako laguntza ofizialian iritsi jakuen halakobost diru ekarri dabelako. Orduan, egoera hori ziharo bigdegabia dala iruditzen jaku eta egoera hoiek salatu eta irtenbidiak planteatzen ditzugu. Ipanaldeko estatuen kontsumo maila moztu biharra

dao, c/o20 besterik ez gera eta planeta ziharo deuseztatzen ari gera. Ganorazko banaketa batekin, danontzako aberastasuna eta baliabidiak dao.

— **Zeintzuk izango dira kontsultan egingo diren galderak?**

Hiru galdera dia alde edo aurka botua ernateko. Lehenengo zera da: "Espainiako Gobemuak, herrialde txiroek berarekin daukaten kanpo zorra erabat ezabatzearen alde zaude ala ez?". Bigarrena, "zor hori ordaintzen erabili behar duten diru hori, beraien populazioaren giza garapenerako proiektutan erabiltzearen alde a1 zauder da. Eta hirugarrenik, nazioaneko mailegu guzti hauek direla-eta, hegoaldeko eta iparraldeko hainbat boteretsuk egin ditzuten legez kanpoko aberasteak ikertu eta hortik irtetzen den dirua berriz ere jatorrizko herrialdeetara bueltatzearen alde gauden ala ez galdetuko da.

Inguruko zein herritan egingo da galdeketa?

Gipuzkuan hiru herritan eingo da, Eibarren, Plazentzian eta Arrasaten. Emaitza onak espero ditzugu kontsulta honetan. Botazivan 16 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango dau, baita etorkinek ere. Hiru boto kutxa egongo dia: bata, 18 urtetik gorakuentzat, herrixan zentsauta daudenentzat. Etorikinentzat beste bat egongo da eta hirugarrena 16 urtetik gorakuentzat. Nere asmua Elgoibarren ere galdeketa eixia izango litzake, baina inomentuz ez dot lortu, orduan, botua eman nahi dabanak hauetako herri batera jun biharko dau eta zentsau gabekuen kutxan botau.

a.
o

XA

EESTEK.ESANA

"Esperantza galdu gabe boluntario lanean oso konprometituta dago." ASIER GORRITI, anaia.





Margarita San Millan, 52 urteko elgoibartarra, Sitges-en (Kat aluinia) bizi da. Bere senarra, Joakin Loiola, pediatra zen eta lan bila joan ziren kataluniara 1974. urtean,

Mckrect; i-ht San jVkillan

han aukera gehiago zaudela-eta. Casteldefels herrian 3 urte pasa ostean, Sitges-era joan ziren. Zoritxaldez, duela 15 urte senarra hil eta alargun geratu zen. Bizimodua Sitges-en antolatuta zeukala esan digu Margaritak, eta bertan jarraitzea erabaki zuela, "batetik, nire semeak, Gaizka eta Aitor han jaiok dira; bestetik, senarrak ireki zuen kontsultan jarraitu nuen lanean", Sitges Bartzelonatik 36 kilometrora kokatuta dagoen kostaldeko herri polit bat dela azaldu digu, "Bartzelona eta inguruetako jende mordoia etortzen da. Sitges oso ezaguna da Katalunian, terrorrezko filmeen zinemaldi ezagun bat ere bertan egiten da. Bestalde, eguraldia primerakoa da, mikroklima antzerako bat daukagula diote, eta horri esker, jadanik badabil jendea hondartzan. Hain zuzen, nire etxe ondoko hondartzak San Sebastian izena du". Gustura bizi arren, Euskal Herria eta Elgoibar beti dituela gogoan aipatu digu, "Abuztuan eta San Bartolome jaietan beti saiatzen naiz bueltatxo bat ematen. 8 anai-arreba gara eta asko akordaten naiz Elgoibarren dudan familiaz".

41101 ■

VIAJES
31L3IRO EXPeSS
bidaia agentziak
babestutako atala

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

G O G O R A T U Z

Juana Juaristi Ifillar moi-1979)



- 1901eko maiatzaren 1In jaiotzen Errezilgo Kamineroko etxean. 5 anai-arreba izan ziren, bera zaharrena. Umetan herriko eskolan ibili zen. Gaztaroa etxeko eta baratzeko lanak eginaz, eta koadrilakoekin jolasean pasa zuen. Aita kaminerua zen, eta Elgoibarrera destinatu zuten, Elgoibartik Azkaraterako bidea zaintzeko. Beraz, familia guztiarekin etoni zen. Juanak 15 urterekin etxeko lanak eginaz familiari laguntzen jarraitu zuen.
- Erromerietara ere joan zen. 19 urte zituela, Santa Ageda egunean ezkondu zen Azkoitiko Seeundino Beristain kaletarrarekin. 11 seme-alaba izan zituzten, nahiz eta lehenengo bostak 'garrotilloa'rekin hil. Geroagokoak, Maritxu, Kruzita, Pedro Sabin, Garbirie eta Iriaki izan ziren.
- 1936ko gerratean herritik atera beharra izan zuen familia osoak, anm haurdun egonagatik. Ihesean zebiltzala, Mundakatik, Basauritik, Santanderretik, Paisaiatik eta azkenik, Donostiako Atotxa futbol zelaitik pasa ziren. Aita, berriz, frontean ihili zen, eta preso hartu zuten Santoñan, Valladoliden eta Ondarretan. Egun triste a.sko pasa zituen familiak.
- Guztiak etxera bueltatu zirenean, gogor egin zuen lan abarketak josten. Familia guztiaren ohitura zen Etxezurin astoa alokatu, janariz bete eta guztiak erromerietara egun pasa joatea.
- Juana emakume sufritu, jenio bizikoa, alaia eta lagun artekoa zen. Familia hasi zuenean benetako lasaitua hartu zuen. Abeslari trebea zen eta sarritan abesten zuen familiakoekin umore onean, familia alaia izan baitzuen.
- Elgoibartar osoa egin zen. Abertzale amotrata zen, sinesmenekoa eta familia girokoa. Euskal kantak abestea, aldizkariak irakurtzea, paseatzea eta sukaldaritza oso gustuko zituen. Bere ahizpa Mariak zeukan "Bar Butron" jatetxean sukalchnei lanak egin zituen.
- 1979ko San Bartolome egunean hil zen 78 urterekin.

Juanito Gorostiza

iriondo TABERNA


Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan.

Pedro Muguruza, 2 • Tel 943 74 00 15

ji Anclustegui s.a.
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:
Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 38 - 74 23 71



JOSE
(Txema)

- Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.
- Zoluak, moketak, sintasola, kortxoak, etab. jartzen dugu,

San Bartolome, 28-1 ezk
Tel: 943 74 12 55
Mobila: 629 44 23 14



Aste honetako erretratu zaharra **Ramon Canalesek** laga digu. 1923. urtean ateratako argazkia da. Ramonek azaldu digunez, "Lueiano Riañori, 'Pardel' (Argazkian 50 zenbakia dararamana) soldadutzara joartetik libratu zelako edo soldadutzara zihoalako, agurra egiteko elkartu zen lagun koadrila hau". Barrutia jatetxean (gaur egun 'Banco Santander' dagoen lekuan) bazkaldu zuten, eta elkarrekin pasa zuten egunaren oroigarri bat izateko, Plaza Txikian atera zuten argazki polit hau. Gaur egun argazkian agertzen direnetatik ez

da inor bizi, Hona hemen erretratuan agertzen direnen izen-abizenak.


Zutik, ezkeretik hasita: **Gillermo Ibarluzea (Manu), Lazara Elustondo (Marigorta), Gregorio Azkue (Fotero), Eloy Iriondo (Porru), Roman Ecenarro, Antonia (Legarda), Urbano Arriaga (Akabarro), Luciano Riaño (Pardel), ezezaguna, Marcos Gorostiza (Santuru), Manuel (Olasope), Eduardo Etxaniz, ezezaguna, eta Fructuoso Arrien (Pope).**

Eserita, ezkeretik hasita: **Fulgencio Barrutia (Bekoetxe), Tiburcio Beristain, Paco Riaño (Pardel), Lazaro Muguruza, Silvino Gabilondo, Patxiko Etxeberria, Santi Kortaberria, Angel Aranberri (Gorriñaga) eta Estefania Uranga (Laxao).**


URTEURRENA



1999ko otsailaren 26an, 79 urte zituela hil zen
TEODORA LARREATEGI ZENDOIAren oroimenez
eta 1997ko otsailaren 6an, 84 urte zituela hil zen
 bere senar **AURELIO MUJIKALARRASTA**ren onnmenez.



URTEURRENEKO MEZA izango da
 Parrokian larunbatean, hilak 26, arratsaldeko 19:00etan.
 Joaten zaretanoi eskerrak alclez aurretik.



KIROL ALBISTEAK

• Tdoturisten irteera otsadaren 27an

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 27an, izango da zikloturisten 7. irteera. Goizeko 10:00etan Txankakua zubitik abiatu, eta honako hau izango da egingo duten itzulia: Eibar, Ermua, Trabakua, Markina, Milloi, Lekeitio, Ondanū, Mutriku, Deba eta Elgoibar. Guztira 78 km. dira. Nahi duen edonork parte har dezake.

-ESK@LARTEK@ KIR@LAK-

ABETO FUTBOLA

- Infantil mutilak •
- 9:00 Pilar A - Fleje
- 9:45 Ikastola A - Arno

- Infantil neska ■
- 10:30 Kilimon - Ikastola B
- 11:15 Ikastola A Hamaikak
- 12:00 Ikastola C - Pilar A

ESKUBALOIA

- Benjamin neska •
- Pilar A 6 - Ikastola A 0
- Pilar A 0 - Ikastola D 31
- Pilar B15 - Ikastola B 0

- Benjamin mutilak
- Herri Eskola A 3- Ikastola A 11
- Ikastola B 4- Mendara A 4
- Herri Eskola B 4- Mendara B 3

Gaztetxoentzako Atletismo Txapelketa zapatuan, hilaren 26an, Mintxetan izango da

Benjamin, alebin eta infantil mailako atleta gaztetxoek Atletismo Txapelketan parte hartuko dute zapatuan, hilaren 26an, Mintxetako atletismo pistan. Benjamin mailako neska-mutilek, altuera, 4x50 m. erreleboak eta pilota jaurtiketa probetan hartuko dute parte. Benjaminen saioa goizeko 10:00etan hasiko da. Alebin mailako neska-mutitak, berriz, zeko 11:00etan hasiko dira, eta honako proba hauek burutuko dituzte: 4x60 m., erreleboak, luzeera, 60 m., hesiak eta pilota jaurtiketa. Azkenik, infantil mailako atleta gaztetxoek goizeko 11:30etik aurrera, luzeeran, hesi lasterketan, 80m.tan, altueran eta pisu jaurtiketan hartuko dute parte. Benjamin eta infantil mailako probetan partaidetza libre da, edonork parte har dezake. Alebinetan, berriz, eskolarteko ekipoekin batera parte hartzea derrigorrezkoa izango da. Izena emateko epea proben hasiera baino ordu laurden lehenago bukatuko da.



atxutxi

karaokea

Martxoak 4

5etatik- 7 sara

-2> Plaza itionsclion

Lagordzailea
Egialbarka. Odurst
rmsko GlatolarItzu

Antolatzailea:
Elgoibarko Izarrako
ATXUTXIAMAIA B.T.

Maialen Morak zilarrezko domina irabazi du Euskadiko Atletismo Txapelketan

Kadete mailako pisu jaurtiketan hartu zuen parte

Pasa den igandean, hilaren 20an, C.D. Eibar taldeko Maialen Mora gazte elgoibartarrak Pista Barruko Euskadiko Atletismo Txapelketan hartu parte zuen Donostiako Anoeta belodromoan. Kadete mailako pilota jaurtiketa proban lehiatu zen Maialen eta zilarrezko domina irabazi zuen. Maialenek 4 kiloko pilota 9' 65 metrora botatzea lortu zuen. Bere marka pertsonala 10' 65 metrokoa da, baina ligamentu operazio bat egin berri diotenez kontutan hartzeko txapelketa burutu zuen, txapelketa prestatzeko denbora gutxi izan baitu. Maialenek badaki Euskadiko Txapelduna izatea zer den, baina aurtan kadete mailako lehen urtea da berarentzat, eta atleta zaharragoren aurka lehiatu beharra dauka. Maialenen hurrengo etTonka, aire libreko atle-




Maialen Morak (ezkerrean) 9,65 metrora botatzen zuen pilota Euskadiko Txapelketako pisu jaurtiketan, 3. postua eskuratuz.

tismo denboraldia ahalik eta hobekien prestatzea izango da. Hori dela eta, gogor entrenatzen ari da Inma Urkiola entrena-tzailearen agindupean.

1G korrikalari Zaraineko

Ilarrek harlu tkIE parte anzuetaf sarlan

Aurrerantzean "Caldererías Egondo" izango da Mintxeta A.T. ren babesle berria



Fskolarteko kirolen barruan, Isidoro Unzueta saria'n 16 orrikalarl gaztetxok parte hartu zuten pasa den dornekan, otsailaren 20an, Zarautzen. Zarautzko Club Deportibok antolatzen duen probaren 30. edizioa izan zen eta elgoibartarrak bikain aritu ziren. Bestalde, aipagarria da Mintxeta Atletismo Taldeak Elgoibarko "Caldererías Egondo" enpresaren babesla lortu duela. Hori dela-eta, hemendik aurrera Mintxeta-Egondo Atletismo taldea izango da taldearen izena. Taldeko kideek parte hartuko duten hurrengo lasterketa Gipuzkoako Txapelketa izango da. Oriatin jokatu da otsailaren 27an, igandean, eta elgoibartarrak Euskadiko Txapelketara sailkatzeko gogo biziz Iehiatuko dira. Ondorengo lerroetan Zarautzeko proban elgoibartarrak lortutako emaitza nabarmenenen berri emango dizuegu:

ELGCI>I IBARTARREIV SAIL 1-CA. E

KATEGORIA	IZENA	PosTuA
Infantil neskak	Dorleta Aranberri	7. postua
Infantil Mutilak	Antton Alberdi	2. postua
Alebin neskak	Lara Urain	2. postua
Alebin mutliak	Aitor Arrillaga	3. postua

E Dit All .T- -Z' A K

Futbola

Haundi 2- S.D. Eibar 0 (3. maila)
 Pedrusko 0 - Amaika Bat 2 (1. erreg.)
 Elgoibar 0 - S.D. Eibar 0 (01m. inf.)
 Soraluze 2 - Elgoibar (1. erreg.)
 Antiguoko 2 - Elgoibar 4 (Jub. E.L.)
 La Salle 1 - Elgoibar 3 (2. kad.)
 Atcte Zaharra 1 - Elgoibar 1 (Heskak)

Eskubaloia

Pagoaga Elg 20 - C.B.Kukulga 9 (Kad. nes.)
 Bergara 10 - GaurElg. 31 (Kad. mut.)
 Tecnomeca Elg. 20 - Almen Jakion 14 (Kad. mul.)
 Unceta Eg.19 - C.B. Kukullaga 13 (Jub. nes.)
 Pneumax Elg. 30 - Alo5a Mendi 18 (Jub. mut.)
C.B. Basauri 7 - I.M.S. Elg. 21 (Senior nes.)
 Armen. Zarautz 25 - I.M.H. Elg. 24 (Senior mul.)

Areto futbola

Bernar 1 - Zur Ta Lur 6 (Autonom.)
 Goobi 4 - Zur Ta Lur 4 (1. maila)

Idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIko jokalarit erregularrena 99/00
 JOKALARIA PUNTUAK

1- Aranberri	39
2- Zulaika	28
3- Castro	25
4- Loren	22
5- Polo	21
6- Alberdi	20
7- Castllo	20
5- Bravo	15
9- Ibarluzea	15
10- Diaz.....	15
11- Baq	14
12- I. Leonardo	12
13- Guarrotzen	5
14- Ruiz	6
15- Mauolo Ramos	4
16- Alkorta	4
17- Txasio	4
18- Caro	4
19- Edu	4
20- Mikel.....	4
21- Fernandez	2

A G E NOD 11

Areto futbola, Kiroldegian

Osirlala, 25
 22:15 Zur Ta Lur - Limpieza Antollana (1. maila)
 23:10 Zur Ta Lur - Pacharan La Navarra (Autonom.)

Futbola, Mintxetan

Larunbala, 26
 15:30 Elgoibar - Hondarribia (Neskak)
17:15 Elgoibar - Real Union (Jub. E.L.)
Igandea, 27
 12:00 Elgoibar - Amara-Berri (2. kad.)
 16:30 Elgoibar - Loiolako (1. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 25
 16:00 Pagoaga Elg. - Urdaibai (Kad. nes.)
 17:30 Unceta Elg. - Urdaibai (Jub. nes.)
 19:15 I.M.S. Elg. - Urrietako (Senior nes.)
 Igandea, 27
 11:00 Gaur Elg. - B.K.L. C.A.E (Kad. mul.)
 12:30 I.M.H. Elg. - Donihane (Senior mut.)

R. 2 LI

Minimalismoaren handitasuna

Jabier Muguruzak bere baxkarkako disko berria aurkeztu zuen joan zen urtean, "Fiordoan" izenburukoa, hain zuzen ere. Aurretik kantari beraren "Boza barruan" eta "Aise" diskoek ikusi zuten argia. Abeslari gipuzkoarraren jarraitzaileok kanta sorta berri batekin gozatzeko aukera daukagu oraingoan ere.

Jabier Muguruzaren musika ia minimalista da; bere ahotsa baxuak eta pianoak baino ez dute laguntzen, nahiz eta abesti batzuetan Muguruzak berak eskusoinua jotzen duen. Orohar, bere abestietan, jazz erritmoak daude oinarrian, baina bere melodiak eta hitzak gure arimaren barneraino iristen zaizkigu.

Jende asko dago oraindik kantautore irundarra ezagutzen ez duena. Bada garaia, beraz, Muguruzarena moduko musikari belarriak irekitzeko eta apreziatzen ikasteko. Euskaldunok demaseko zortea daukagu horrelako kantari bat edukitzeaz, are gehiago, gure hizkuntzan abesten duela kontutan hartuta.

Jon Eugi



Ongaprikolektiboak oinarritzko argazki ikastaroa antolatu du

Martxoaren 6tik 17ra izango da eta 20 orduko iraupena edukiko du

Ongarri Argazki Kolektiboak oinarritzko argazki ikastaroa antolatu du. Martxoaren 6tik 17ra bitartean izango da, beraz, ikastaroak bi aste iraungo ditu. Eskolak egunero ernango dira astelehene-tik ostiralera arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Guztira 20 orduko iraupena edukiko du ikastaroak. Izena eman nahi duenak 943 74 23 01 telefonora deituz egin dezake.



Ikastaroan argazkilaritzaren arlo ezberdinak landuko dira: argia, enfoketa etab.

astaro hau egingo duen taldeak gehienez 2 pertsona izango ditu. Eskolak Usetxe Kultur-gunean izango dira (lehengo Pedro Muguruza eskolan) eta teoria eta diapositiben bitartez ernango dira. Ikasleek argazkiak aterako dituzte eta laborategiko praktikak egingo dituzte zuri beltzeko argazkieki. Irakaslea Jokin Martinez izango da. Oinarritzko argazki ikastaro honen egitarauaren barnean arlo ezberdinak landuko dira. Lehendabizi, argazkiaren

kin ahal izango dute ikastaroa egingo dutenek. Izena emateko 5.000 pta. ordaindu behar dira, Ongarri kolektiboko bazkideek merkeago edukiko dute eta 4.000 pta. ordainduko dituzte. Prezioaren barnean materiala (pelikulak, paperak, produktu kimikoak etab.) karpetak eta negatiboetarako artxibagailuak sartuta daude.

oinarriak aipatuko dira (historia, kamera ilunaren xehetasunak...). Kamara izango da aztertuko den elementuetako bat. Kamarari buruz, bere funtzionarnendua, enfoketza, diafragma, obturadorea, lenteak, foku distantziak eta eremu sakontasuna erakutsiko dira. Argia, landuko den beste arlo bat izango da: emultsioak eta materialak, pelikula mota ezberdinak, argi neurketak eta argi moetak 117. tertuko dira. Arlo hauetaz aparte, emultsio fotografikoen (negatiboa, pelikulen prozesaketa zuri beltzean) edo kopien bukaeraren berri (kontserbazio tratamenduak, montajea eta aurkezpena etab.) jakin ahal izango dute ikastaroa egingo dutenek.

Izena emateko 5.000 pta. ordaindu behar dira, Ongarri kolektiboko bazkideek merkeago edukiko dute eta 4.000 pta. ordainduko dituzte. Prezioaren barnean materiala (pelikulak, paperak, produktu kimikoak etab.) karpetak eta negatiboetarako artxibagailuak sartuta daude.

Gorakadak "Txanogorritxo" txontxongilo lana eskainiko du martxoaren 5ean Herriko Antzokian

Gorakada antzerki taldeak "Txanogorritxo" txontxongilo lana aurkeztuko du martxoaren 5ean, igandean, Herriko Antzokian. Eskularru eta barilazko txontxongiloak erabiliz, 40 minutuko emanaldia eskainiko du. Fantasia eta errealtatea nahasten dituen saio hau arratsaldeko 16:30ean hasiko da. Emanaldia haurrek eta pertsona helduek ere ikusteko modukoa da.

Gorakada taldeak Charles Perrault-ek idatzitako "Txanogorritxo" ipuinaren egokitzapena dakar Elgoibarrera. Taldearen mol-



Gorakadak Txanogorritxo ipuinean ez dauden beste balore batzuk aurkezten ditu.

daketa 3 eta 7 urte bitarteko ikusleei zuzenduta dago batez ere. Amaiera zoriontsua izateaz gain, beste elementu berri batzuk erabiltzen ditu. Jatorritzko ipuinean agerian dauden erasokortasuna eta sadikotasuna kendu egin dituzte egileek eta munduaren ikuspegi anai-korragoa agertzen dute.

Antzezlan honetan, ipuinetako pertsonaieiei tradizionalki erantsi ohi zaizkien papentic aldatu egin dizkiete. Horrela, aitak amaren zereginak betetzen ditu, otsoa, hortzgabekoa izateaz gain magoa da eta ehiztaria despistatua. Honen bidez, *Gorakadak* beste balore batzuk landu nahi ditu.

Azterketa garaia da ikasleentzat, batzuk amaitu berri dituzte, besteak examinetan murgilduta daude eta badira azterketak orain hasiko dituztenak ere. Urduritasun garaia da azterketetako. Ikasleek liburu artean sartuta ematen dituzte orduak. Hala ere, badaude apunteak eta liburuak albo batera utzi eta azken orduko irtenbide bati heltzen diotenak. Soluzio hori txuletak egitea da. Guk hiru ikasle ekarri ditugu gure artera kopiatzeko sistemai buruzko beraien sekretuak azaltzera.

Mikel Tarragual

16 urte



|| Irakaslian arabera. Batzuk atento egoten dia, gelan bueltaka, baina heste

batzuk mahaixan, jarritxa. Bigilantzia askorik ez da egoten normalian.

|| Behin baino gehixaotan. Badaezpada beti da ona txuletak eruatia, zeozer ahaztu ezkerro etartzeko. Norbera txuletak eukitzen atrebizten bada, ondo dao.

|| Nere txuletak nahiko kutriak dia, azkenengo momentuan indakuak.

Boligrafuetan indako txuletak nahiko ezaunak dia, baitxa ordenadorian letra txikixan idatzi eta regletan pegautakuak... Sekula ezautu doten bitxixena "Bie" boligrafuetan orratzakin idatzitako txuletak dia, informazio dexente sartzen da bertan, baina nik ez dot sekula holakorik erabili.

|| Zero patatero. Lehengo egunian klaseko bati txibatzen ari nintzala harrapau eta irakasliak 0 jarri zian azterketan. Hori irakaslian araberrakua da, batzuek txuletia kendu eta jarraitzen lagatzen dabe, beste batzuek, berriz, zuzenian 0 ipini.

|| Atrebixu ezkerro ez da hain zaila txuletak ateratzia eta hori da sistemarik onena. Ni normalian nahiko lasai ibiltzen naiz. Ahal baldin bada ezkina baten eta atzeko aldian ipintzen naiz eta hola irakaslia jarritxa badao ez da hurbiltzen eta bueltaka ihili ezkerro ere ikusten dot.

TXULETAK:

azterketak gainditzeko sistema

- AZTERKETETAN ASKO ZAINTZEN AL DUTE IRAKASLEEK?
- INOIZ ERABILI AL DUZU TXULETARIK AZTERKETETAN?
- ZEIN MOTAKO TXULETAK EZAGUTZEN DITUZU?
- IRAKASLEAK TXULETEKIN HARRAPATUZ GERO...
- KOPIATZEKO SISTEMARIK ONENA.



Patricia avo

16 urte

Bai, atzian jartzen dianian batez ere. Ze aurrian ipintzen dianian, liburuak edo egunkarixa irakurtzen ha.sten dia eta ez dabe asko bigilatzen.

Bai, oin lehen baino gehixao, ikasketak zailauak dialako.

Nik letra txikixa dakat eta papel txikixetan eskuz idatzitako txuletak erabiltzen ditzut, hola ordenadorian baino

gehixao sartzen jata papel bakoitzian. Gero erlojuan sanu eta ahal dotenian ateratzen dot. Examinera goizeko 8:00etan sartu bihar banaiz, goizeko 5:30ean jaikitzen naiz, gaixa irakurtzen dot eta ez dakitena txuletan kopiatzen dot. Ordubete inguru tardatzen dot txuletak prestatzen.

Hirugarren mailan, txuletak lehenengo aldiz in nitxuanian, folixuetan eta letra haundiz in naban eta harrapau in ninduten, hala ere, examina aprobau naban.

E Txuletak dudarik gabe. Albuhan lagunene bat euki arren, batzutan ez dabe txibatzerik nahi izaten, edo txibatzen arrapatzeko arriskua ere haundixaua izaten da. Gainera, nahiko resultau ona eman diate oin arte. Dana dala beti ez, ze batzutan pasatzen da txuletan idatzitxa dakazuna ez galdetzia. Askok txuletekin jun ezkerro atzian jartzia hobia dala esaten dabe, baina neretzat alderantziz, ile luzia dak, atenez, txuletia iliakin tapatzen dot eta aurrian ez naute ikusten.

Iban Zubiauffe

17 urte

|| Segun eta ze irakaslek. Ikusi izan ditzut azterketa egunian bigilantzia haundirik ein gabe egunkarixa irakurtzen egoten dianak. Beste batzuk, ordia, nahikua eta gehixegi ere bigilatzen dabela esatera ausartuko nintzake.

|| Askotan. Oin, urtiak aurrera jun ahala, ikasketak gero eta zailauak dia eta txuleta gehixao erabiltzen hasi biharko naiz.

|| Nik eskuz indakuak erabiltzen ditzut normalian, bairta ordenadorian indakuak ere eman izan ditzut. Letra txikixakin idatzi, gero plastifikau eta holaxe preparatzen ditzut. Amak behin edo behin harrapau izan nau txuletak prestatzen eta esan ditz horretan biharrian, denboria ikasten pasauko banu emaitza hohiak aterako nitxuzkela.

|| Ez naute sekula txuletekin harrapau eta oingoz nahiko resultau onak euki ditzut.

|| Txuletak erabiltzia, albokuari galdetzia edo aldamenekuak examina pasau eta goitxik hehera kopiatzia sistema onak dia. Baina maixua piska bat erne egoten bada, holakorik ezin izaten da in.





25 ostirala

20:30 SAGARDOTEGIRA
IRTEERA
Madalako parketik
Antolatzailea:
Gazte Asanblada

22:15 ZINEA
"Asterix y Obelix contra el
Cesar"

2 larun bata

10:00 ZUHAITZ EGUNA
Mintxetan

12:00 ZAZPIKI
IRRATIAREN BILERA
Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
"Asterix y Obelix contra el
Cesar"

24:00 SALSA GAUA
ARLENISekin eta
TXEMAREkin
Azkena Dantzalekuan
Goizaldeko 4:00ak arte

27 igandea

10:00 ZIKLOTURISTEN
IRTEERA
Txankakua zubitik
Antolatzailea:
Elgoibarko Lagun Taldea

16:30-19:30-22:30 ZINEA
"Asterix y Obelix contra el
Cesar"

2 astele ena

22:15 ZINEA
"Asterix y Obelix contra el
Cesar"

2 osteguna

21:30 ZINE KLUBA
"Los Herederos"

ostirala

19:00 ERAKUSKETA
Gaia: "Emakumeak han eta
hemen mundu berri bat
erditzen"
Kultur Etxean
Antolatzailea:
Haizea Emakume Taldea

22:15 ZINEA
"Sobrevivire"

11
NE
A



Zuzendaria: Claude Zidi.
Antzezleak: Cristian Clavier,
Gerard Depardieu, Roberto Benigni.

"Asterix y Obelix contra el Cesar"

Kristo aurreko 50. urtean Cesarren agin-
duetara dauden legio erromataffek Galia
guztia konkistatu dute. Erasoari aurre egin
dioten bakarrak herri txiki bateko bizilagun-
ak dira. Galiar suntsiezin hauen sekretua
indar izugarria ematen dien edabe magikoa
da. Rene Goscinnyren eta Albert Uderzo-
ren komiki ezagunean oinarrituta, pelikula
honek haragi eta hezurrezko Asterix eta
Obelix ezagutzeko aukera il(aintzen du.

IM • • • IMIMZEMIMMIIMIEMI 11 • IZZIMMIIMIZIMEZEMI

• **25 zuhaitz landatuko dira Zuhaitz Egunean**

Larunbatean, otsailaren 26an, Zuhaitz eguna delata, 25 zuhaitz landatuko dituzte Mintxetako aparkalekuan goizeko 10:00etatik aurrera. Gipuzkoako Foru Aldundiak bertoko zuhaitzak sustatzeko asmoa du. Helburu horrekin Elgoibar-ko ikastetxe guztietako ikasleei gonbidapena Iuzatu nahi die Elgoibarko Kultura sailak, batez ere, L.H.4.etik gorako ikasleei.



• **Ernakumeen errealitateari buruzko erakusketa martxoaren 3tik aurrera Kultur Etxean**



"Emakumeak han eta hemen mundu berri bat erditzen" izenburupean, Kultur Etxean ikusgai izango den erakusketa antolatu du 'Haizea Emakume Taldea'k. Martxoaren 3an, ostiralean, inauguratuko den erakusketa hau 'Mugarik Gabe' Elkartearen bidez ekarri dute Elgoibarrera 'Haizea' taldekoek.

Artelanen eta argazkien bitartez, ernakumearen egungo errealitatean gehiago barneratzeko aukera eskaintzen du martxoaren 17ra arte zabalik egongo den erakusketak. Ordutegiari dagokionez, astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara egongo da ikusgai.

FARMAZIAK

- | | | |
|----|--|------|
| | Egunez | Gaez |
| 26 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) | |
| 27 | Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean) | |
| 28 | Fernandez Fernandez | |
| 29 | Yudego Yudego | |
| 1 | Zabaleta Zabaleta | |
| 2 | Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean) | |
| 3 | Escala Escala | |

ESCALA: RekaIde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

J. IGNACIO FERNANDEZ
Heniko enparanta 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze, Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
27 igandea Eizagirre

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Stefan Ruzowitzky.
Antzezleak: Simon Schwarz, Sofhie Rois, Lars Rudolph.

"Los Herederos"

Granjak dituzten baserritar batzuen arteko borroka kontatzen du filme austriar honek. Baserritar batzuk granja bat jasoko dute oinordetzan, baina gainontzeko baserritarrak ez dira konforme geratuko eta tirabirak sortuko dira. 30eko hamarkadako borroka sozialei eta generazionaleri huruzko erretratu garratza, Austria-ko paraje ederrekin gozatzen du autoreak. Valladolideko zinemaldian filmerik onenaren saria irabazi zuen.

Lana

• ESKAINTZA •

- Pertsona euskalduna behar da goizez 2 ume zaintzeko. v 943 74 05 14/ 943 74 15 16/ 626 23 75 70
- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. te 943 74 13 18

• ESKAEFLA •

- Neska eskaintzen da goizetan lan egiteko. a 943 74 29 73
- Erizaintzan diplonaturatuta neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko, etxean nahiz ospitalean. Egunez edo gauzez, ar 943 74 27 78 (Itziar)
- Umeak edo nagusiak zaintzeko neska eskaintzen da. Esperientziarekin. fr 943 74 06 12
- Esperientziadun neska eskaintzen da gaixoak eta pertsona nagusiak zaintzeko. v 630 75 44 47 (Meroce)
- Neska esperientziaduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Egunean 2 ordu. v 609 52 68 69
- Neska eskaintzen da airatsaldez lan egiteko. v 943 74 18 72 (21:00etatik aurrera deitu. Amagoia)
- Neska eskaintzen da orduka plan-txa egiteko. v 667 34 86 07 (Sandra)

Etxehizitzak

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Ahal bada altzariekin. is 626 80 80 93
- Etxea alokatzen dut Pedro Muguruza Etorbidean. 3 logela. • 943 74 27 79
- Logelak alokatzen ditut. Sukaldea erabilrreko aukera. v 943 74 24 06
- Etxea salgai Urasandin. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, balkoia eta ganbara. v 943 74 15 42
- Etxea salgai Muguruza kaleko 26. zenbakian. s 943 85 08 92
- Pisu txikia edo buhardila alokatuko nuke. ir 617 68 53 99
- Pisua salgai Eibarren. Tr 609 95 16 41
- Pisua salgai Santa Ana kalean. 3 gela ditu, v 943 74 41 35
- Etxehizitza alokatzen da Deban ekainera bitartean. v 943 74 13 39 (Ane)

Salerosketak

- Ordenagailuarentzat mahaia salgai. Erabili gabe. v 943 74 32 98
- Ohea egiten den 90cm zabaleko sofa salgai. Egoera onean. Berriberria. 13' 943 74 21 68
- Nissan Cabstar E 110.35.a salgai. Bolketea eta grua (500 kg). 5 hilabete. 1400 Km. SS-BG. v 943 60 33 63
- Coocker arrazako txakur-kumea salgai. 13. 696 05 73 46
- Ford Seort 1.6. I. salgai. a 943 74 33 51 / 943 19 25 71 (Rosa Mari)
- Peugeot 205 autoraku Pirelli gurpilak salgai. v 943 74 43 16 (Gauzez deitu)
- Peugeot etxeko "Zenith" markako motorra salgai. Erabili gabe. ir 943 74 30 52 (eguerdi eta iluntzetan deitu)
- Moneayo Costa Azul karabana salgai. 3 pertsonarentzat. v 656 77 28 80
- Ofizianako materiala salgai: 2 mahai, 2 aulki, 3 artxibadore, fotokopiagailua eta faxa. /2 656 77 28 80

Bestelakoak

- Gaztetxerako aulkiak eta mahaiak behar dira. Soberan izan eta ematea nahi baldin baduzue deitu. Jasotzera pasako gara. v 943 74 35 72
- Ikasle pisua osatzeko jendea behar da. 2 logela libre. 1r 943 62 53 77 (Fernando)
- Haurraren betaurrekoak galdu nituen duela 3 aste Kiroldegitik Ikastolarako bidean. v 943 74 38 29 (Mariaje)
- Otsailaren 13an, bastoia galdu nuen San Pedro bailarako plazan. Ahate buru bat dauka heldulekuan. ir 943 74 01 75
- Otsailaren 5ean ume baten Athletieeko kamiseta galdu nuen Mintxetan. ir 943 74 28 64
- Katu pert.sa bikote (emea) bila dabil aldi baterako harremanetarako. v 677 76 65 48

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

Garajeak

- Garajea satgai Pista Beltzean. ir 943 74 00 39

Agurrak

- Zorionak Loli Agirrezabali, hilaren 24an urteak heteko dituelako. Nagorenen eta Alazneren partez.
- Zorionak Ane txikiri, hilaren 23an 7 urte bete zituelako. Laren eta here gurasoen partez. Baita Alazneren partez ere.
- Zorionak Ainhoa Mugerza Arizmendiarritari, hilaren 26an urteak beteko dituelako. Ascenen, Arkaitzen eta Unaien partez.
- Zorionak beti ametsetan dabilen lagunari eta ondo pasa aste-bukaeran. Zure lagunaren partez.
- Zorionak Julen Ansolari "Mau", hilaren 20an urteak bete zituelako. Bere kurtso nesken partez.
- Zorionak Olatz Baltzolari eta Kristina Odriozolari beren urtebetetzean. Herri Eskolako 2-Bkoen partez.
- Zorionak Mikel Tadeo Tudaneari Idatz Lehiaketan saritua izan zelako. Lagun batzuen partez.
- Zorionak Eukeneri, 'zeba bar. Ondo pasauko zendun larunbatian, ezta?
- Zorionak Alazne! Gaur 12 urte bete dituzulako. Asko jan, urteek asko pisatzen baitute. UAUOren partez. Asmatu zein garen.
- Zorionak amama ri! 90 urte bete arren, neska gaztearen irribarrea eta bizipoza zurekin dituzu oraindik. Triki tixa eta ingurukoon maitasuna izan al dira hain gazte eta umoretsu mantendu zaituztenak? Ondo-ondo pasa zapatuan eta eutsi goiari, 100erako ez da asko falta-eta. Familiakoak.



• Zorionak Aitor Gurrutxagari, martxoaren 2an 2 urte beteko dituelako. Familiaren eta bereziki Asierren partez.

• Zorionak Alazne Eskuderrori, gaur, hilak 25, 12 urte bete dituelako. Familiaren eta bereziki abizpa Nagorenen partez.



• Zorionak **Tere Garateri**, hilaren 28an urteak heteko dituelako. Begien dizdira politx bori inoiz galdu ez dezazula. Muxu

poto 10 bat etxekoen eta bereziki lkeren partez.

• Zorionak Iñigo **Lopezi**, hilaren 22an 8 urte bete zituelako. Gurasoen eta Xabierren partez.



* Zorionak **Asier Basurtori**, gaur, hilak 25. 3 urte bete dituelako. Familiaren eta bereziki arnona Josefaren partez.



• Zorionak **Eider Rodriguezi**, hilaren 24an 5 urte bete zituelako. Gurasoen eta anaia Jonen partez.



• Zorionak **Egoitz Rodriguezi**, hilaren 24an 14 urte bete zituelako. Familiaren eta Kristinaren partez.

• Zorionak **Jorge Martinezi**, hilaren 28an urteak beteko dituelako. Gurasoen, anaia Ivanen eta Sergioren eta bereziki Gorkaren eta Elviren partez.



11
ifisfirtf
JATETXEA

*Eguneko menuak
ilereziak
ra, abala
Ardo e, sicainiza zabala*

*Basarte Kalea, 4
Tel - Faxes: 943 743 426
Elgoibar*

Ireki berria

EUSKAL HERRIKO DEIAK 1978-1980

abstentzioa

Larunbata 26, denok Donostiara
17:30ean, Anoetako estadioak

MANIFESTALDI NAZIONALA

**Faxismo espainiarraren aurka,
Euskal Demokrazia**

Autobusa 16:00etan Plaza Handian.




11.16

GERNIKA 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 DONOSTIA

KULTURA

CRIMENES del corazón

martxoak. 10, ostirala
gaueko 22:30ean
Herriko Antzokian



AKTOREAK

Alberto Arizaga	Alvaro San Narciso/Joaquin Sanchez
Olatz Beobide	Ani Martin de la Riva
Iñake Irastorza	Lali Martin de la Riva
Nati Ortiz de Zarate	Leonor Ruiz
Ana Pimenta	Merche Martin de la Riva

ZUZENDARITZA

Maribel Belastegi

ERDERAZ



Kultura

TXANOGORRITX -

”
L
- 4, ”
A”
45-
f

4aie,ef/17774/ra
s /5.1 cip A\

marxoak 5, igandea
arratsaldeko 16:30ean
Herriko Antzokian

TEATRO



at

eti5°111111

#4 meiet4/7Z4 /U0

S .4N [CD • / \